

PRENTSA-OHAR

“Hiriko monumenturik enblematikoenak lorez janzten dira”

4.000 lorek eta 500 landare baino gehiagok Gasteizko monumentuak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 3a. AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak ostegun honetan, ekainak 3, aurkeztu dute "Gure hiriko monumentu enblematikoenen lore-apainketa" ekimena, Gasteizko Udalaren Ekonomia Sustatzeko Sailarekin duen lankidetzaren hitzarmenaren esparruan. Hitzarmen horrek, gainera, hiriko tokiko merkataritza sustatzeko beste ekimen batzuk ere biltzen ditu, eta urteko azken lauhilekoan jarriko dugu abian.

Kasu honetan, eta AENKOMERen izaera gremikoa nabarmenduta, loradendako azpisektorea ikusarazi eta suspertu nahi dugu, loreen eta landareen konbinazioak gure etxeen eta lorategien barrualdea apaintzeko ez ezik, ekitaldiak, ospakizunak eta bestelako jarduerak antolatzeko ere eman diezazkigukeen aukerak erakutsiko dizkiguten profesional-talde baten lanaren aurkezpenaren bidez.

Zertan datza ekimen hau?

2020an, Florida parkea sortu zeneko 200. urteurrena zela eta, Arabako lore-saltzaileen kolektiboak parke horretako monumentuak apaindu zituen, eta ikusirik parkeak arrakasta handia izan zuela hirian eta jarduera-azpisektore horren aintzatespen profesionalean, berriz ere AENKOMERetik, beste jarduketa bat egitea eta gure hiriko monumentu nagusiak apaintzea planteatu genuen, herritarrak gure arkitektura-bitxiez gozatzera erakartzeko.

Horrela, aurtun gure hiriko eskultura nagusiak apaintzea erabaki da:

- Ibiltariaren eskultura
- Toreatzailearen eskultura
- "La Mirada" eskultura
- Zeledonaren eskultura
- Iqbal Masih haur pentsalariaren eskultura

Monumentu horiek lore eta landare naturalez eta sasoiko landarez apaindu dira (begoniak, bitxiloreak, kanpaitxoak, krabelinak, lobeliak, surfiniak, etab.), baita espazioarekin bat datozen dekorazio-materialez ere, horiei kolorea eta ikusgarritasuna ematea baloratzuz. Monumentu bakoitzaren azken osaera zainduak lotura du monumentu horien ezaugarriekin eta historiarekin, edo keinu bat egiten dio sektorearen lanari. Horrela egiten du Ibiltariak, gure hiriko lorezain bihurturik astebetetz, edo toreatzaileak, gaurtik aurrera 850 arrosa baino gehiagoko longaina duenak. Halaber, Zeledonek lore-aterki berri bat izango du eta La Mirada filmak tximeleta bati emango dio bizia udaberri honetan. Haur pentsalariak, bere aldetik, txikieneen lana islatuko du, haurren tratu txarrak saihesteko eta haurren eskubideak defendatzeko beharraz kontzientziatu nahian.

Apaindutako monumentu hauek ekainaren 10era arte bisitatu ahal izango dira gure hirian. Jarduera honen bidez, hiria dinamizatzen lagunduko duen jarduera bat gauzatu nahi da, sektoreko profesionalen trebetasunak eta proiektu komunetan batzeko eta beren jarduera hiriko ekitaldiekin lotzeko gaitasuna erakutsiz. Parte hartu duten loradendak hauek izan dira: Arantza Loradenda, Iris Loradenda, Kerkus Loradenda eta Muscari Floristas.

AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak ARABAKO MERKATARITZA FEDERAZIOA da. Arabako merkataritza eta zerbitzuen sektorea ordezkatzeko du, Arabako 32 merkataritza- eta zerbitzu-elkarte adierazgarrienak bilduz, gremiokoak zein zonaldekoak, hiriburuko hiri-merkataritzako plataforma barne.

- Arabako merkataritzako eta zerbitzuko 1.368 ETE eta mikroETE biltzen ditu, gutxi gorabehera 1.443 establezimendu edo salmenta-puntu ordezkatzeko dituztenak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan honako hauekin:

AENKOMER EMPRESARIOS/AS D E COMERCIO Y SERVICIOS DE ÁLAVA

Edurne Parro García

945 12 35 00 – 688 86 73 04 - gerencia@aenkomer.com